


## IRAKURRIAREN ULERMENA LANTZEKO

### Irakurri aurretik laguntzen duten IKT tresnak


#### Google galdetegiak

[Google Docs](#)-eko galdetegiak oso egokiak izan daiteke testuak/liburuak irakurri aurretik. baliagarriak dira aurre-ezagutzak azaleratzeko, ikasleek gaiaren inguruan dakitena adierazteko, irakurgaiaren helburua zehazteko, hipotesiak egiteko edota ikasleek izan ditzaketen zailtasunak antzemateko (lexikoan, esaterako)



Galdetegiak oso erraz sor daitezke google docs aplikazioan eta galderak idaztzez gain, sistemak aukera ematen du laguntza-testua idazteko. Galdera mota ere aukeratu daiteke (zazpi aukera ematen ditu, hala nola test-galderak, erantzun irekiak, ikasleek testu laburtxoak idaztekoak...). Erantzunak automatikoki jaso eta ordenatzen ditu sistemak kalkulu orri gisa eta erantzunen laburpena eta grafiko eta portzentajek ere ematen ditu.

Irakasleak elkarrizketa bultzatzeko erabil dezake galdetegiak eta jasotako iritzien inguruan hitz egiteko.



### Oharren horma digitalak

**horma digitalen bidez (Padlet , Wallwisher ....) iritziak, testu laburrak, bideoak, irudiak, estekak... txertatu daitezke eta ikusgai eta entzungai jarri. Irakurri aurretik, ikasleek ohar laburtxoak idatz ditzakete testuaren formatuari erreparatuta, eta irakurriko duten testu-generoaren inguruko aurreikuspenak eta hipotesiak egin, jorratuko duten testuaren edo liburuaren irudiei buruzko iritzia eman...**

Oharren bidez, talde lana eta lan kooperatiboa bultzatzen dira denen oharrak eta iritziak ikusgai daudelako. Gainera, aukera didaktikoak zabaltzen dira, sareko beste erabiltzaile batzuekin partekatuzeko aukera ematen dute. (jatorria: [blogge@ando](mailto:blogge@ando))



### KAHOOT

Galdere-erantzunak sortzeko programa. Irakurketa eta jolasa elkartzeko tresna dugu Kahoot. Oso erabilgarria izan daiteke testuak irakurri hurreko fasean, aurre ezagutzak

azaleratzeko, lexiko berriari buruzko galderak egiteko... Hemen duzue informazio baliagarria eta adibideak.

<http://www.educacionrespuntocero.com/recursos/kahoot-primeros-pasos-tutorial/37533.html>